

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Zerbitzuak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa puntualaren behin-behineko onarpena, A, C eta D eranskinetan

Udalbatzak, 2025eko azaroaren 5ean egindako ezohiko bilkuran, zerbitzuak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala puntualki aldatzea erabaki zuen, A eranskinean “Kirol-instalazioa erabiltzeagatiko prezio publikoa” (Atalak: “Prezio publikoen ohar orokorrak eta salbuespenak”), C eranskinean “Jarduerak, tailerrak, ikastaroak, koloniak eta abar egiteagatiko prezio publikoa” (C.4 atala) eta D eranskinean “aulkiak mailegatzea kontzejuei, udalei, elkarteei eta erakundeei, Sologana zentrotik kanpo erabil ditzaten”.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 65.2 artikuluetan eta Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan xedatutakoa betez, espedientearen jendaurrean jartzen da hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aztertu ahal izateko eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Epe hori igaro eta alegaziorik aurkeztu ez bada, behin betiko onartutzat joko da.

Durana, 2025eko azaroaren 5a

Alkatea

M^a BLANCA ANTEPARA URIBE